







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %2,4 egin zuen gora apirilean, 2017. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %4,4 jaitsi zen, hirugarren sektorean edo zerbitzuetan, berriz, %5,9 igo zen eta etxekoan %27,1.

2018ko apirilera arte metatutako kontsumoak %1,4 egin zuen gora, 2017. urteko epe berean izandakoarekin alderatuta; etxeko sektorean %1,4 igo zen, zerbitzu arloan %1,7 eta industrian, ordea, %1,4 egin zuen behera. Apirilera arte, industrian gora egin duten sektoreak, besteak beste, hauek izan dira: zementua (+%6,2), kautxuzko eratorriak (+%6,7), kimika (+%5,2) eta beiragintza (+%5,1); behera egin dutenak, aldiz, ontzigtza (-%53,5), papera eta kartoia (-%7,2) eta siderurgia eta galdagintza (-%3,1).

Gas naturala







Apirilean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %8,3 egin zuen gora, 2017ko apirilean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %38,7 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, berriz, %14,1 igo zen. Apirilera arte metatutako kontsumoak %2,4 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (-%46,2 CCTT-n eta +%8 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Martxoan, garraioan erregaien kontsumoak %3,3 egin zuen gora, 2017. urteko hil berean izandakoarekin alderatuta. Lehen 3 hilabetean metatutako kontsumoa %7,7 igo zen, 2017koarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %4,3 egin zuen gora eta A gasolioarenak %8.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

Apirilean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 99,3 milioi kupel izan zen (2017ko apirilean izandakoaren aldean, %2,5 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %2,8 egin zuen gora kontsumoak, 14,4 Mbbpd kantitatara iritsiz; Txinan %3,4 igo zen, eta 13,9 Mbbpd kontsumituzera heldu zen eta AEBetan %3,7 igo zen, eta 20,3 Mbbpd kopuruan kokatu zen.

Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %12,1 egin zuen gora apirilean, 2017ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. 2018ko lehen hiru hiruhilekoan metatutako kontsumoak %6,6 egin zuen gora.






Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen apirilean, %5,5, 2017ko apirilean izandakoaren aldean. 2018. urtean metatutako kontsumoa %2,4 igo zen, 2017an izandakoarekin alderatuta.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %0,2 egin zuen gora martxoan, 2017ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %2,5 igo zen eta gasolioena, aldiz, %0,2 jaitsi zen. 2018ko lehen hiru hilabeteetan metatutako kontsumoak %3,1 egin zuen gora, aurreko epealdi beraren aldean, (%3,8 igo zen gasolinena eta %2,9 gasolioena).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %9 egin zuen gora martxoan, eta 2018ko lehen hiru hilabeteetan izandako kontsumo metatua %6,8 igo zen, aurreko epealdi berarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 71,6\$ (58,4€) izan zen apirilean. Urtebetean prezioak %35 egin zuen gora (%17,9 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 42,7 €/MWh izan zen apirilean; duela urtebete zegoenaren aldean, %2,3 egin zuen behera.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 19,8 €/MWh izan zen martxoan, eta %14,1 igo zen, 2017ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Apirilean, EGIX-en batez besteko prezioa 18,5 €/MWh izan zen (2017ko apirilean izandakoarekin alderatuta, %14,2 igo zen). Spot merkatuetan, apirilean, Henry Hub-en prezioa 9,6 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 24,5 €/MWh, (2017ko hil horretan izandakoaren aldean, -%9,7 eta +%30,3 egin zuten behera eta gora, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, apirilean, gasolioaren prezioa 1,16 €/l izan zen (urtebetean %5,6 igo da), eta gasolinarena 1,25 €/l (urtebetean %2,3 egin du gora).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 13,4 €/t izan zen apirilean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %183,7 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, Powernext, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.